

Uxue Perez Mujika

D maila • Aipamena

Nor dan nor? La Salle ikastexean ikasten du, Beasaingo da, bere zaletasun nagusiak irakurtzea, trikitixa jotzea eta mendira joatea dira. Nahiz eta astearteak 13an jaio zorte ona izan du sari hau irabazterakoan.



GILTZAPETURIK

Sua, lurra, ura eta haizea. Horiek dira bizitzaren elementu nagusiak. Nik pertsonalki beti eduki dut honen inguruan jakin-mina, beti gustatu izan zait bat beste guztiak baino gehiago. Sua. Haren kolore erakargarria, bere berotasun xamurra, bere irudi hipnotikoa Hari begiratzuz egongo nintzateke bertan gatibu, dardarka dabilen kolore gorriko uholdea begiratzen ... Supituki Pizz! Itzali da nire eskuetan dagoen makiltxo, magia egin dezakeena, nire arazoak ahaztea eragiten didana.

Azkena itzali bezain laster beste bat pizteko gogoia etorri zait, beharra. Piztu dudanean berriz preso geratu naiz, nire eginbehar guztiak ahaztu ditut, denbora pasa da ... Segunduak, minutuak, orduak ... bat-batean burua altxatu eta sukaldean dagoen erloju borobila begiratu dut. Goizeko zortziak!!! Lanera joateko ordua dut! Ahal bezain laster jantzi eta kalera irten naiz. Nire Malboro kaxatik zigarro bat hartu eta erretzeko baino gehiago, txiskeroa pizteko gogoia nuela sentitu dut.

Aseguruetan lan egitea ez da munduko lanik dibertigarriena, ezta zirraragarriena ere, baina nire nolabaiteko obsesiotik gertu dabil beti, ni giltzapetzen nauen elementutik gertu. Laneko mahaian eseri ondoren, egunkaria ireki eta berriak irakurtzen hasi naiz. Nire begiek radar bat edukiko balute bezala lehen irakurri duten albistea hau izan da: "SUTEA IZAN ZEN ATZO GOIZEAN ITURRIOTZ AUZOKO ETXE BATEAN. Udaltzainek sua itzali eta zauritu bat artatu zuten". Pentsatzen jarrita, gustatuko litzaidake bertan egotea suaren handitasunaz gozatzeko.

Nire egun gogokoena ekainak 23 da, San Juan bezpera. Gogoan dut gau izartsu hura, ilargia gazta bezain borobila ikusten zen, jendea zegoen alde guztietatik, musika, eta harekin bat eginez jendea dantzan, baina, nire arreta pizten zuena aurrean neukan adar piloa zen. Maite eta Jon ikusi nituen baina ez nintzen agurtzera joan sua noiz piztuko zain nengoelako. Haiek dantzak ikusten ari ziren begiak zabal-zabalik, nesken hankak egiten zituzten mugimendu azkarrengatik txundituta. Tontorrari begira nengoen, lelotuta, munduan beste gauza garrantzitsuagorik egongo ez balitz bezala. Isuri berri zioten gasolina usaintzen zen. Dantzariak suziak zeramatzaten eta piloa piztu zuten, ni atseginenez begira nengoen, . Sua behatzen denbora nahikoa eman genuenean, gainera salto egiteko ideia izan genuen. Suak ez zuen indarrik baina bertan zeuden txinpartek biziak ziruditen. Batzuk zikintzeko beldurrez, beste

batzuk erretzeko izuz, besteen aurrean ausartak eman nahi izan eta beren aurpegietan ikara sumatzen zitzaizkienak. Ni aldiz, jakin minez nengoen ea hipnotizatzen ninduen hark zer egingo zuen nire lagunak beldurtzeko, ukitzea bururatu zitzaidan. Hasieran bere berotasuna sentituen gorputzetik hedatzen, haren handitasuna sentituz, gozatuz. Ondorengo uneak askoz okerragoak izan ziren. Ospitalera eraman ninduten. Sirena hotsak entzuten nituen nire buruan bueltaka, baita anbulantziak kaminoko zuloetatik pasatzerakoan egiten zituen burrunbak ere. Zorabiatzen hasia nengoen, eskuan nuen minak menderatuta. Egunak pasa nituen gaizki. Hala ere, gehiago kostatzen zait hasierako une goxo eta bero hori ahaztea hurrengo egunetako mina baino. Hori gertatu zitzaidanetik nago giltzapetuta.

Ez nintzen suarekin hasi baina horrela bukatu nahi dut. Haren kolore erakargarria, bere berotasun xamurra, honen irudi hipnotikoa ... Gertuagotik sentitu, ukitu, usaindu, entzun, ikusi nahi ditut, bertan giltzapetuta egon nahi dut betirako dardarka dabilen kolore gorriko uholdea sentitzen, harekin dantzan.